

## Editoriala

### OSASUNALDIA, osasun-zientzien gradu-amaierako lanen 3. Jardunaldia

OSAGAIZ aldizkariak, OSASUNALDIA, osasun-zientzien gradu-amaierako lanen 3. jardunaldia antolatu du. Babesle izan ditu UEU eta UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza eta Medikuntza eta Erizaintza, Farmazia, Fisioterapia eta Psikologia fakultateak. Aurreko bi jardunaldiak modu telematikoan egin baziren ere aurtengoa 2023ko ekainaren 12an izan da, aurrez aurre, Eibarren, Markeskoa Jauregian.

Osasun-zientzien graduak euskaraz ikasi dituzten ikasle asko graduatzen dira urtero: ikasketen bukaerarako lanordu asko eskatzen dituen gradu-amaierako lan bat idatzi behar izaten dute eta epaile-lanak egiten dituzten irakasleen aurrean defendatu. OSASUNALDIA jardunaldiaren asmoa da gradu-amaierako lan horiei ikusgarritasun handiagoa ematea, beste ikasleen aurrean ere aurkeztu ahal izatea eta ikasleen arteko harremanak bultzatzea. Jardunaldi honetara aurkeztu ahal izan dira azken bi ikasturteetan (21/22 eta 22/23) osasun-zientzietako ikasketen bukaeran aurkeztu diren gradu-amaierako lanak. Orain, laburpen guztiekin, OSAGAIZ aldizkariak ale berezi bat osatu du.

Osasun-arlo desberdinetako lanak jaso ditugu, erizaintzakoak, medikuntzakoak eta farmaziakoak. Jatorriaren arabera, Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik iritsi zaizkigu. Arazoak izan ohi ditugu lan gehiago jasotzeko, erizaintza-gradua bukatzen dutenak segituan lanean hasten direlako eta medikuntza-graduak BAME edo MIR azterketa famatua prestatzeko ikastaroak hasi behar izaten dituztelako, bukatu eta egun gutxitara, atsedenerako tarterik gabe.

Aurten, lehenengo aldiz, bi sari banatu dira: Gradu-amaierako lan onenaren OSAGAIZ saria Nahia Elezgarai Arriola egileak irabazi du “Heriotza poliziaren zaintzapean: Bizkaian 2002-2022 artean izandako kasuen ikerketa deskriptibo erretrospektibo forentsea” izenburua daraman lanarengatik. Euskara estandarrean egindako aurkezpen onenaren LARATZ saria, berriz, Maddi Salegi Ansa egileari eman zaio “QT luzearen prebalentzia eta faktore auresaleak egoitzetan bizi diren gaixo geriatrikoetan” lanarengatik.

OSAGAIZ osasun-zientzien aldizkariaren ale berezi hau ikasleok egindako lanaren aitortpena izan dadila eta argitaratu ditugun lanen egileek jarrai dezatela beren ikerketak eta lanak euskaraz lantzen eta zabaltzen. Bestetik eskertu nahi dugu Osagaiz proiektua bultzatzen jarraitzen duten Gipuzkoako Medikuen Elkargoak zein Bizkaiko Foru Aldundiak emandako babesa.

Jose Ramon Furundarena Salsamendi

Editoriala

**Osasunaldiaren 3. Jardunaldian aurkeztutako gradu-amaierako lan onenaren OSAGAIZ saria:**

**Nahia Elezgarai Arriola: “Heriotza poliziaren zaintzapean: Bizkaian 2002-2022 artean izandako kasuen ikerketa deskriptibo erretrospektibo forentsea”.**



**Euskara estandarrean egindako aurkezpen onenaren LARATZ saria:**

**Maddi Salegi Ansa: “QT luzearen prebalentzia eta faktore auresaleak egoitzetan bizi diren gaixo geriatrikoetan”.**

